

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Gobernuak eta Kontuen Ganberak jardunaldia antolatu dute herritargoari Hitzarmen Ekonomikoaren berri emateko

Ostiral honetan izango da Baluarten, aurrez helbide honetan izena eman ondoren: jornadaconvenio@navarra.es

Astelehena, 2018.eko otsailak 26

Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuak eta Kontuen Ganberak sustatutako [jardunaldian](#), ostiral honetan, martxoaren 2an, Nafarroaren eta estatuaren arteko Hitzarmen ekonomikoa landuko da, [berriki izan duen eguneratzeren harira](#). Saioa goizez izango da, 9:00etan hasi eta 13:30ak arte, Baluarten.

Ekintza honen bitartez, bai Nafarroako Gobernuak eta bai Kontuen Ganberak, herritarrentzako irisgarriagoa bilakatu nahi dute Hitzarmen Ekonomikoa bezalako erreminta garrantzitsu bat. Foru Komunitatearen finantziazio-sistema propioa da hitzarmena, bere zerga-burujabetzaren berme, Konstituzioak babestua eta foru-lurraldeetako eskubide historikoetan gordea.

Hortaz, interesa duen edonorentzako egongo da saioa zabalik, datorren otsailaren 28a barne [aurrez izena emanda](#), eta Hitzarmen Ekonomikoaren ezagutza oinarritzat hartuz, Nafarroako Hitzarmen Ekonomikoan dauzkan ondorioak eta etorkizunera begira landu beharreko erronkak lantzearekin batera.

Hala, eta lehen zati batean, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Zuzenbidearen historiako irakasle den Roldan Jimenok, hitzarmenaren jatorri eta bilakaera izango du hizpide, Javier Zabaleta, zuzenbidean eta aholkularitza juridikoan aditua eta Luis Esain, Nafarroako Zerga Ogasuneko zuzendariak Nafarroak arlo honetan dauzkan eskuduntzak eta zuzeneko eta zeharkako zergen inguruan zein Estatuko zerga-bilketaren gainean arituko dira.

Hizlariekin solasaldia jorratu ondoren, Nafarroak Estatuari egiten dion ekarpen ekonomikoa landuko da (metodologia eta 2015 urteko oinarriko ezartzea), Hitzarmen Ekonomikoko Zerbitzuko zuzendari den Maite Domínguezaren eskutik; gero, erronka eta aukera berriak aztertuko dira, Mikel Aranburu Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariaren eskutik.

Jardunaldiaren irekiera ekitaldian Uxue Barkos, Nafarroako Lehendakaria eta Asunción Olaetxae, Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakaria izango dira, itxiera ekitaldian berriz, Aranburu kontseilaria eta Nafarroako Legebiltzarreko lehendakaria Ainhoa Aznarez.